

BALIO PROPOSAMENA

Gu Ampoule taldeko partaideak gara eta enpresa-proiektu ideia bat aurrera ateratzekotan gaude. Hori dela eta, ideiarekin aurrera jarraitzeko asmoz, hau azalduko dugu. Gure proiektuaren zergatia ulertzeko, lehenik eta behin hau sortzera animatu gaituen gatazka nagusia ulertaraziko dugu. Honi garrantzia emanez, azpimarra dezakegu hainbat urtetan zehar gure artean izandako arazo nagusia aldaketa klimatikoa dela. Honi aurre egiteko, birziklatzea soluzio bezala aukeratu dugu. Gure helburua, birziklatzeari buruz jendea kontzientziatzea da. Eta horretarako aplikazio hau sortu dugu, jendeak hausnartu dezan zein garrantzitsua den birziklatzea gure planeta babesteko.

Azaldutako arazoari aurre egingo dion aplikazio bat asmatu dugu. Aplikazio hau eskuragarri izango da denontzat. Bertan, atal ezberdinak aurkitzen dira, hainbat moduetara lagundu ahal izateko. Adibidez, zakarra zein zakarrontzitarra bota jakiteko atal bat, aldaketa klimatikoari buruzko notiziak azalduko dituen atal bat etab. Horrela, pertsona bakoitzak bere esfortzu minimoarekin izugarriko aldaketak lortuko lituzke. Horrez gain, denoi esker egoera aldatzen lagunduko genuke.



Berritasuna eskaintzen duen aplikazioa egingo dugu, izan ere, guk sortuko dugun proiektua, nahiz eta zerbait berria ez izan, bertan aurkituko den informazioa eta barruan egongo diren atalak jendea birziklatzen lagunduko duen lehen aplikazioa bermatuko dugu.

Guri **lana errazteko**, lehenik eta behin herritarrek beraien etxeetan zaborra sailkatzen hasi beharko lukete. Horrela, zabor-biltzaileen **lana murriztuko** dute eta ondoren dena zabor lekuetan sailkatzea errazagoa izango da.




Diseinuari dagokionez, bi logo egitea erabaki dugu. Bat, aplikazioaren logoa izango da, eta bestea gure tadea errepresentatuko duena. Aplikazioko logoa nahiko sinplea da, eta gure asmoarekin zerikusia du. Beste logoan, berriz, gure taldearen izena agertzen da. "Ampoule" hitzak frantsesez "bonbila" esan nahi du, hau ideia kontzeptua errepresentatzen duena denez, hura aukeratu genuen, gure enpresa ideia bati esker hasi delako. Horrez gain, kolore berdeak ingurumena errepresentatzen duenez, eta guk hau zaintzeko asmoa dugunez, aproposa da.

Aplikazioari erreparatuz, hasierako pantailaren behealdean, hainbat atal agertuko dira. Pantaila nagusian bezeroen kontzientzietan erraz sartu daitekeen informazioa jarriko dugu. Adibidez zenbat plastiko kontsumitu den egunean. Ataletako bat haurrentzako jokua izango da eta hori adierazteko, pertsona bat zakarrontzira zaborra botatzen jarriko dugu. Haren ondoan, aipamenak eta eskaerak egiteko atalean, boligrafo bat paper batean idatzen egongo litzatekeen irudia edukiko du. Erdikoan, kamera bat jarriko dugu, zaborra zein zakarrontzira botatzea jakin dezaten. Ondoko atalean, hitzaldi batzuen bideoak egongo dira ikusteko prest eta bertan punto gorri bat erabiliko dugu irudi bezala. Azkenik, eskuineko aldean, jendeak plastikoa berrerabiltzeko ideiak igotzeko aukera edukiko du eta hori adierazteko, birziklatzearen logoa jarriko dugu.

Marka/Statusa. "Greenpeace" fundazioarekin kolaborazioaren bat egiten saiatuko ginateke helburu komunak ditugulako gure aplikazioak eta beraiek haien fundazioarekin. Horrela gehiago zabalduko zen gure aplikazioa munduan zehar eta kolaborazio honen bitartez jende gehiagora iritsiko zen geure aplikazioa.

Prezioari erreparatuz, hasiera batean, denei eskeiniko zaien hasierako aplikazioaren prezioa dohaina izango da. Hala ere, preimun aukera bat eskainiko dugu, kasu honetan, 3,99€ ordainduta, ohiko aukerak ez dituen eskubideak izango dira. Horiek, publizitate falta, albiste kopuru handiagoa eta jolastean baliabide ezberdinak izango dira. Alde batetik, hizkuntza-aukera askotarikoa izango da, bestalde, aurrera joan ahala, paisai ezberdinetan jolasteko aukera izango dute. Hala nola, mendian, itsasoan... Azkenik, hitzaldi gehiago eta ezberdinak ikusteko ahalmena izango dute.

Eskuragarritasunari dagokionez, gure aplikazioa edonork izango du erabiltzeko aukera. Izan ere, denentzat zuzenduta dagoen aplikazio bat da.



Erabilerraztasuna, erreziklatzen erraz lagunduko duen aplikazio bat jarriko dugu martxan, edonork erabili dezakeena. Aplikazioan ulertzeko beharrezkoa den informazioa zehatz azalduko dugu, eta argi jarriko dugu atal bakoitzaren helburua zein izango den.